

Kreditu-sistema pribatua

Alberto Martínez Aranberri

Kreditu-sistema eta euskal erakunde finantzarioak

Euskal kreditu-sistema pribatua estatu espainiarreko finantz sistemaren barruan dago gaurkoz. Hala ere, euskal kreditu-sistema pribatuak baditu "nolabaiteko nortasun propioa" eskaintzen dioten ezaugarri bereziak.

Edozein estatu edo herrialdetako finantz sistema, superabit-dun gastu-unitateek sortzen dituzten aurrezkiak defizit-dun gastu-unitateetarantz bideratzea helburu nagusi duten erakunde, baliabide eta merkatuen multzoak osatzen du.

Aurreztaileak eta inbertitzaileak normalean berberak ez direnez, horien funtzioa guztiz garrantzitsutzat jotzen da merkatu-ekonomietan. Are gehiago: maiz, pertsona fisikoa, enpresa nahiz ente publikoa, aurreztaile izatetik inbertitzaile neto izatera pasatzen da. Egunerokotasunean, subjektu hauek une jakin batean, proportzio desberdinean baldin bada ere, aurreztaile eta inbertitzaile dira aldi berean.

Inbertsio produktiboetarantz zuzentzen den aurreztutako baliabideen fluxua eta lehentasun indibidualetara egokitzeko ahalmena zenbat eta handiagoak izan, are eta eraginkorragoa izango da Finantz sistema osatzen duten erakundeek burututako bitartekaritza-lan klasikoak ere.

Esandako guztia kontutan harturik, kreditu-sistemaz (eta zehazkiago Euskal Herrikoaz) aritzerakoan, Banka pribatua, Aurrezki-Kutzak eta Kreditu-Kooperatibak aipatu behar dira.

Euskal erakundeen hiru talde hauek honako lotura hauek dituzte estatuko gainerako finantz sistemaren osotasunarekiko:

- 1) Organo politikoei dagokienez (erabaki zentralak) Gobernu zentrala eta Ekonomi eta Hazienda-Ministraritza daude. Hauen alboan, eta geroago ikusiko dugunez paper garrantzitsua jokatu, Komunitate Autonomoak daude.
- 2) Organo exekutiboiei dagokienez, Espainiako Bankua dago.

Euskal erakunde finantzarioei buruzko kompetentzia autonomikoak

Komunitate Autonomo desberdinetan diharduten erakundeak, finantz erakunde-motaren eta iharduten duteneko Komunitate Autonomoaren araberako legeria desberdinen bidez eraentzen dira.

Aurrezki-Kutxen eremuan kompetentzien banaketa Konstituziotik sortzen da. 149.1.11 art.an "moneta-sistema: dibisak, gantzioak eta bihurtgarritasuna, kreditua, banka eta aseguruak antolatzeko oinarriak" eta artikuluko bereko 1.13 atalean "iharduera ekonomikoaren plangintza orokorreko oinarriak eta koordinazioa"ren kompetentzia eskusiboa, Estatuaren esku uzten da. 148.1.13 art.ak bestalde, Komunitate Autonomoiei "politika ekonomiko nazionalak ezarritako helburuen barnean, Komunitate Autonomoen ekonomi garapena sustatzeko" kompetentziak bereganatzeko aukera ematen die.

Abiapuntutzat hain Konstituzio-manamendu zabalak harturik, Autonomi Estatutu guztiek Aurrezki-Kutxei buruzko kompetentziak jasotzen dituzte.

Estatutu desberdinak honela taldeka daitezke:

- a) Aurrezki-Kutxa, kreditu korporatibo, publiko eta territorialaren konpetentzia eskusiboa, eta kreditu, banka eta aseguruiei buruzko lege-garapen eta antolaketaren exekuzio-konpetentzia jasotzen dituztenak: Andalusia, Katalunia, Nafarroa, Valentzia, Gaztela-La Mantxa eta Euskal Herriko Komunitate Autonomoak.
- b) Aurrezki-Kutxa, kreditu korporatibo, publiko eta territorialaren konpetentzia eskusiboa jasotzen dutenak, eta kreditu, banka eta aseguruiei buruzko lege-garapen eta antolaketaren exekuzio-konpetentziei aipamenik egiten ez dietenak: Aragoa eta Galizia.
- c) Aurrezki-Kutxei buruzko garapen- eta exekuzio-konpetentziak eta baita kredituaren antolamenduari buruzkoak ere, dituztenak: Balearak, Gaztela-Leon eta Errioxa.
- d) Aurrezki-Kutxei buruzko garapen- eta exekuzio-konpetentziak eta ekonomi iharduera orokorraren garapen generikoari buruzkoak soilik dituztenak: Asturias, Kanariak, Extremadura, Madril eta Murtzia.

Azkenik Kantabriako Estatutua dago, zeinak Aurrezki-kutxekiko duen konpetentzia "eskusiboa" ala "garapeneko" den ez bait du zehazten.

Kreditu-kooperatibei dagokienez, ia Komunitate Autonomo guztiek dute konpetentzi motaren bat: "eskusiboa" zein "garapeneko". Baina hiru komunitatek bakarrik legistatu dute gai hau: Euskadikoak, Kataluniakoak eta Andalusiakoak alegia.

Esparru legal honetan, bai Eusko Jaurlaritzak eta baita Nafarroako Gobernuak ere, Aurrezki-kutxa eta kreditu-kooperatibei buruzko konpetentzia eskusiboa, eta kreditu eta bankaren arloan garapen legistatiboaren eta antolamendu-exekuzioaren konpetentziak soilik dituztela ikus daiteke. Honek nahikoa logikoa dirudi; izan ere, banku gehienek izaera suprakomunitarioa bait dute.

Bankaren arloko konpetentziak, nahitaezko inbertsio-koefiziente jakin batzuk finkatu ahal izatera mugatzen dira.

Aurrezki-kutxen arloan, Eusko Jaurlaritzak 45/1981 Dekretu bidez eta Nafarroako Gobernuak 213/1986 Foru-dekretu bidez, ia funtzio eta konpetentzia berberak bereganatu dituzte.

Kreditu-kooperatiben gaian, Eusko Jaurlaritzak 1/1932ko kooperatiba-legearen bidez, Baserritarren Kutxa eta Lan Kide Aurrezkiari buruzko konpetentziak bereganatu zituen. Hala ere, eta auzi batzuen ondoren, Lan Kide Aurrezkiak 1974 eta 1978ko estatu-araategien bidez eraentzen da; Auzitegi Gorenak honen iharduketa-eremuak esparru autonomikoa gainditu egiten duela uste izan bait du.

Euskal Herriko Aurrezki-kutxen ezaugarri batzuk

Estatu espainiarreko Aurrezki-kutxek erakuntz jatorri desberdinak izan badituzte ere, Euskal Herri eta Nafarroako Komunitate Autonomoko kutxa guztiak jatorri publikoa izan dute; guztiak korporazioek sortu dituzte: batzuk Foru-Diputazioek ("Aurrezki-Kutxa Probintzialak") eta besteak lurraldeko hiriburuko Udalek ("Aurrezki-Kutxa Munizipalak").

Historikoki Euskal Herriko kutxak izan ziren, arazo komunen ebazpenak elkartrukatzeko, proiektuetan koordinatuki iharduteko, etab..., lehenengo elkarrengana hurbildu zirenak. Hogeigarreneko hamarkadaren hasieran Hego Euskal Herriko Aurrezki-Kutxen Federazioa eratu zen. Urte gutxi batzuk geroago, Federazio honen eraginkortasun eta exenpluak bultzaturik, guztien artean Espainiako Aurrezki-Kutxen konfederazioa sortuko zuten.

Europako Ekonomi Elkarteko Estatu mailako konfederazioek Europar Elkarteko Kutxen Taldea osatzen dute. Talde honek, nolabait ukitzen dituzten Elkarteko erabakietan eragina du. Ordezkaritza-izaera handiagoz eta esperientzi elkartrukerako Aurrezki-Kutxen Nazioarteko Institutua dago, non mundu osoko Kutxa-Elkarte gehienak bait daude.

Normalean, Kutxa probintzialek probintziako esparruan iharduten zuten, eta Kutxa munizipalek horien hiriburuetan. Denbora pasa ahala ordea, bi kutxa-taldeak eremu probintzian aritu izan dira.

1977ko Dekretu liberalizatzailearen ondorioz, Kutxak eta Bankuak, burutu ditzaketen eragiketei dagokienean, parekatu egin dira. Gerora, hainbat hiriburutara (Madril, Bartzelona, Bilbo, Valenzia eta Zaragoza) hedatzeko aukera eman zitzaizen Kutxei. Euskal

Herriko kutxak aukera honetaz baliatu egin ziren eta gehienetan Madril eta Bartzelonatik hasi ziren.

1979an, beren "lurralde"aren barruan hedatzea ahalbidetu zitzairen. Bizkaiko eta Gipuzkoako kutxek Euskal Herriko Komunitate Autonomoko hiriburuan bulegoak ireki zituzten; gutxi edo gehiago, Lurralde Historikoekiko errespetua mantendu egin dutelarik.

Autonomi Estatutuen garapenaren ondorioz, Hego Euskal Herriko Aurrezki-Kutxen Federazioa bitan banandurik geratu da: Aurrezki-Kutxen Euskal Federazioa eta Nafarroako Federazioa. Hala ere, eta ondorio batzuetarako bederen, Hego Euskal Herriko Federazioa (edo honen izpiritua) funtzionatzen darrai.

Duela gutxi, Bizkaiko lurraldeko kutxa biek bateratze-protokoloa sinatu dute eta Arabako lurraldeko kutxa biak ere asmo berberaz harremanetan daude. Oraingoz ez dago inolako akordio ofizialik.

Denbora asko ez dela, estatuko legerian nahitaezko inbertsio-koefizienteen antzinako lastra ia desagertzerainoko hainbat urrats eman da. Finantzaketa segurua eta merkea ziren estatuarentzat. Gaur egun ondoko hauek geratzen dira soilik: "kutxa-koefiziente" desproporzionatua (Besteren baliabideen %16,5), zeina zati batean ordaintzen bait da eta prezio eztabaidagarrian gainera; %10eko "Moneta-kontrolerako koefizientea" (Estatuaren titulerosketa) desagertze bidean dago; eta "Inbertsio-koefizientea" (Besteren baliabideen %1) non Komunitate Autonomo bakoitzean jaulki eta baimendutako balore eta kredituak sartzen bait dira.

Badirudi Estatuko kutxentzat liberalizazio geografikorako dekretua agertzeaz dagoela. Euskal Herriko Kutxek komenigarri baderitzote, beste komunitate Autonomo batzuetarako hedapen-planak aztertu ahal izango dituzte. Dirudienez, inolako kasutan ez da era deskontrolatuan egingo, Espainiako Bankuak zuhurtasun-formulak ezarriko omen ditu eta.

Aurrezki-kutxek ez dute berez, erreserbatara zuzenduriko mozkinaz osatutako kapitala besterik. Azkenaldi honetan ordea, kutxa batzuk jesapen-formula desberdinak jaulki dituzte eta, beste herrialde batzuetan egiten denaren antzera, akzio moduko beste titulu batzuk (botu-eskubide politikorik gabeak) jaulkitzeko posibilitatea aztertzen ari dira. Honela kapitalizaziorik zailenari aurre egin ahal izango diote; Bankak gainera, nahierara zabaltzen du kapitala.

Guzti honek galdera bat egitera garamatza: zein da gaur egun Aurrezki-kutxen eta Bankuen arteko aldea? Alde hori, lehen bi arrazoi hauengatik nabaria zela esan ohi da:

- a) Kutxek Gizarte-ekintzak burutzen zituzten.
- b) Kutxek gizarte-izaera zuten; zerbitzatzen zituzten komunitateak ziren nagusi edo onuradun bakarrak.

Gizarte-ekintza klasikoak ez du gaur egun horrenbesteko garrantzirik, Estatuak eta gure esparruan bereziki Komunitate Autonomoek, arlo honetako eragina gehitu duten neurrian. Baina oraindik ere arlo asko dago lantzeko.

Gaur egun "Zeharkako" Gizarte-ekintzak dira garrantzitsuak. Arrisku handikoak edota errentagarritasun txikikoak direlako ekimen pribatuak alde batera uzten dituen proiektuetan edo baliabiderik ezagatik ekimen publikoa iritsi ezin deneko proiektuetan sartzen dira (gogoratu Komunitate Autonomoekin Finantz kolaboraziorako hitzarmenetan izandako partaidetza nagusia).

Euskal Herriko kutxek bertako kultura sustatzen jarraitzen dute. Baliabide gutxiko gizarte-taldeen interesak zainduz jarraitzen dute. Hedatu baldin badira ere, jaio zireneko lurraldean sus-traiturik darraite. Lukro-xederik gabe jarraitzen dute, baina beren esku jarritako baliabideen gestio onean etengabe ahaleginduz. Eta bezeroarengandik zein politika eta gizartearen erabaki-zentruetarik oso hurbil egonez jarraitzen dute gainera.

Euskadiko kreditu-kooperatiben ezaugarriak

Gurean kreditu-kooperatibez hitz egitea, Lan Kide Aurrezki-az, Baserritarren Euskal Kutxaz eta Baserritarren Nafarroako Kutxaz aritzea da.

Tamaina erlatiboari dagokionez, azken biak garrantzi txikikoak dira. Horregatik hauei dagokien iruzkina ere urria izango da. Esan dezagun Baserritarren Euskal Kutxa, Baserritarren Bizkaiko Kutxa eta Baserritarren Arabako Kutxaren arteko bateratzearen ondorio dela. Baserritarren Nafarroako Kutxak, berriz, komunitate horretan du iharduketa-esparru naturala.

Baserritarren Kutxak eta Lan Kide Aurrezkia kreditu-kooperatibak dira eta horregatik, kooperatibei buruzko indarrengo legeriari loturik daude. Biak gordailu-erakundeak dira, eta zentzu honetan, finantz bitartekari bankarioak orokorki eraentzen dituen arautegia bete egin behar dute eta gainera beraiei espezifikoki dagokiena ere bai.

Izaera bikoitz hori dela eta, menpekotasun administratiboa ere bikoitza izango da; alde batetik Zuzendaritza orokor edo Lan-departamentuaren menpe egongo dira eta bestetik Espainiako Bankuaren menpe.

Entitate kooperatiboen eta hauen bazkideen finantz premiak zerbitzatzearen gizarte-helburu soila duten erakunde bezala defini ditzakegu.

Fondo-ezarpenak onartu ahal izango dituzte, eta beharrezko banka-zerbitzuak eta helburu kooperatiboak hobeto betetzeko premiazkoak diren gainerako zerbitzuak ere eskainiko dituzte. Kreditu kooperatiboko erakundeek hirugarrenen gordailuak erakarri ahal izango dituzte; hauekin eta beren bazkideenekin pasiboko edozein eragiketa egin dezakete (kooperatibak fondoak hartzen ditu); aktiboko eragiketak (mailegu- eta kreditu-emakida) neurri handian beren bazkideekin burutzen dituzte; baliabide propioen %15 soilik zuzen bait dezakete hirugarrenetara.

Baserritarren kutxek edo Nekazal krediturako kooperatibek lur-kooperatiba eta Nekazal Elkartek sustatzen dituzte. Nekazaritza, abelazkuntza, basogintza eta landatar bizitza-baldintzak hobetuko dituzten iharduerak finantzatu behar dituzte. Lan Kide Aurrezkia bezalako kooperatibek helburu-gama zabala dute, hiritar zein industri izaerazko iharduerak aipagarri direlarik.

Izan ere, Lan Kide Aurrezkia 1959an Arrasaten sortu zen, in-guruko industria kooperatibo txikiei finantz laguntza eskaintzeko. Geroztik, ondoren ikusiko dugunez, muga hau asko zabaldu da, hala sektorialki nola geografikoki.

Betiko topikoari helduz, Lan Kide Aurrezkia esperientzia berezia dela eta Estatu Espainiar osoko kreditu-kooperatiben ezau-garri tipikoak gainditu egiten dituela esan behar da. Adibidez, Estatuko kreditu-kooperatibek gordailu-erakundeen arteko garrantzirik txikieneko taldea osatzen dute (erakundeen balantze totalen %3 inguru). Hego Euskal Herriko komunitateetan bere presentzia dezente garrantzitsuagoa da, gero ikusiko dugun bezala.

Lan Kide Aurrezkiak ezarpen-askatasun osoa du, murriztapenak bere estatutu espezifikoa soilik datozkiolarik; baina hauek ere ezarritako baldintzen arabera aldagarri dira. Izan ere, erakunde honen sukurtsalik gehienak Hego Euskal Herriko Komunitate Autonomoetan daude irekita, berari atxekitako kooperatibak ere bi komunitate horietan dauden bezalaxe.

Aurrezki-kutxek beren mozkinen %25-%75 esleitzen dute Gizarte-ekintzetara. Kooperatiba-legeak ordea, Gizarte-ekintzetara %10 soilik zuzentzera behartzen ditu kreditu-kooperatibak. Nahitaezko koefizienteei dagokienez, Lan Kide Aurrezkiak duela gutxi parekatu da, gutxi gorabehera, gaur egun Kutxek jasaten dituzten betebeharrekin.

Euskal Herriko banka pribatuaren ezaugarriak

Estatuko banka pribatua (hitz gutxitan esateko) honela defini daiteke: Sozietate Anonimo bezala erregistratutako bankuen multzoak osatzen du, zeintzuen akzioek, soilik pertsona edo erakunde pribatuen esku dauden eta iharduera bankarioan akziodunen onura nagusirako lukro-xedez lan egiten duten.

Kasu berezia "Banco Exterior de España" k osatzen du. Bere akzioak Estatuaren eta sektore pribatuaren artean daude banaturik. Horregatik, banku pribatu gisa jokatzear gain, Gobernu zentralak agindutako finantzaketa bereziko (kanpo-merkataritza) funtzio jakin batzuk ere bete izan ditu.

1974eko Erreformatik "Banka industrialak" sukurtsalak irekitzeko zituen mugak kendu eta "Banka komertzial" arekiko zituen muga eta eragikera-desberdintasunak arindu egin zituen. Geroztiko erreformek, banku komertzial eta industrialen arteko diferentziak inbertsio-koefiziente desberdinetan mantendu egin dituzte, bakoitzaren bokazio-espezializazioaren funtziotan.

Bokazio eta iharduera-motaren desberdintasuna gaur egun guztiz garrantzitsua da, zeren eta ikusi bait dugu koefizienteak indarra galduz doazela, Aurrezki-kutxenarekin parekatzeko bidean. Horregatik banka-mota biak batera, desberdintasunik gabe, aztertuko ditugu.

Bi Komunitate Autonomoetan dauden Aurrezki-kutxa guztiak, Caixa de Pensions kataluniarra ezik, bertan sortutakoak dira. Aldiz, helbide soziala bi komunitateetan (iharduera nagusia beste komunitateetan duten ala ez kontuan izan gabe) duten banku pribatuak kopururari dagokionez gutxiengoa dira. Ondorio praktikoetarako, hemendik aurrera, bi komunitateetan lan egin eta helbide soziala kanpoan duten banku pribatuak "banka finkatua" izenpean taldekatuko ditugu eta helbide soziala lurralde horietan dutenak "Euskal Herriko Banka" izenpean.

Beste talde bat Atzerritar Bankak (Atzerritar Bankuen sukurtsalak, Atzerritar Bankuen sozietate filialak) osatuko du. Gero ikusiko dugunez, hauen presentzia estatuko lege desberdinei zor zaie.

Aurrezki-kutxa eta Bankuak oso legeria orokor antzekoaren menpe daude (Sozietate-errentaren gaineko zerga, Balio erantsiaren gaineko zerga, "kutxa-koefizientea", "Nahitaezko inbertsio-koefizientea", etab...).

Banku espainiarren tamaina, Europar ikus daitezkeenekin alderatuz, txikia da. "Expansión" aldizkariak argitaratu berri duen lan batek dioenez, Europako 300 handien artean 20 kreditu-erakunde espainiar besterik ez dago. Bilbo-Bizkaia Bankuak du, osoki harturik, posiziorik hobereena; 33. postua hain zuzen ere. Estatuko Aurrezki-kutxen artean, Caixa de Pensions kataluniarrak du lehen tokia; 79.a alegia.

Arazoa sinplifikatuz, Banka europarraren eta Banka espainiarren artean dagoen desoreka, Aurrezki-kutxa europarren eta espainiarren artean dagoena baino dezentez handiagoa dela baieztatu daiteke. Gure banka-ingurunean, Bilbo-Bizkaia bateratua ezik, gainerako guztiak tamaina txikikoak dira.

Beste kontu bat da Nafarroako Komunitate Autonomoan eta bereziki Euskal Herrikoan iharduera handiko "banku finkatu" asko egotea. Historikoki bi komunitateek estatu osoko banka erakarri izan dute. Atzerritar bankak ere, jasaten ditugun era guztietako arazo ekonomiko eta sozialak jasanda ere, izan du nolabaiteko presentzia, txikia bada ere, gure ingurunean.

Banka pribatu, Aurrezki-kutxa eta kreditu kooperatiben artean gure ingurunean konkurrentzia handia bada ere, beraien artean Estatuan baino muga gutxiago daudela esan daiteke. Erakunde hauen arteko komunikazioa agian erosoagoa da; elkarte bateratuak

sortzera, edo inbertsio-proiektuetan elkarrekin partehartzera ere iritsi izan dira adibidez.

Finantz erakundeen analisisa

Orain arte deskribatutako erakundeak taula estatistiko batzuen bidez analizatuko ditugu. Horrela, orain arte idatzitakoa osatu eta hobeto ulertu ahal izango dugu.

A Taula: Lan Kide Aurrezkiak

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	E.H.K.A.	Naf.K.A.	Estatua
Bulego-kopurua	24	62	59	145	33	180
Enplegatu-kopurua	d.g.	d.g.	d.g.	d.g.	d.g.	1.234
Kooperatiba-kopurua	12	89	54	155	10	
Koop. industrialak	6	51	22	79	7	
Elikadura-koop.	4	1	3	8	0	
Irakaskuntz koop.	1	20	24	45	1	
Etxebizitza-koop.	1	10	2	13	2	
Zerbitzu-koop.	0	7	2	9	0	
Kontsumo-koop.	0	0	1	1	0	

Iturria: L.K.A.aren urteko txostena.

A taula Lan Kide Aurrezkiari bakarrik dagokio. Ondorengo baieztapenak egin daitezke:

1. Gipuzkoako bulego-kopurua gainerako lurraldeetako baino handiagoa da, nahiz eta Bizkaia ere antzeko kopurua izan. Estatuan zehar ere bulegoak badituela ikus dezakegu. Gipuzkoar jatorria, Gipuzkoatik kanpo baina Euskal inguruneko ondorengo hedapena eta azkenik Estaturako irteera ere ikus daitezke.

2. Kooperatiba-kopurua ere Gipuzkoan handiagoa da. Baina bulego-kopuruaren eta kooperatiba-kopuruaren (ez gara tamainaz ari) arteko korrelazioa ordea alderantzua da. Hau da, gainerako lurraldeetan bulego-kopurua kooperatiba-kopurua baino handiagoa den bitartean (Arabako bikoitza da), Gipuzkoan %70ekoa besterik ez da. Honek, Gipuzkoatik kanpoko hazkunde-politika berria argitzen du.
3. Gipuzkoa eta Araban nagusitzen den kooperatiba-mota industrialia da. Bizkaian irakaskuntza kooperatiba da ugariena.

B taula, Banka pribatuari dagokio, lehen egindako sailkapenean oinarrituz.

B. Taula: Banka Pribatua

	<i>Bulego-kopurua</i>
ARABA	
Gasteizeko Banka	12
Banka "Finkatua"	90
Atzeritar Banka	4
GIPUZKOA	
Gipuzkoako Bankua	39
Gipuzkoako Banku Industrialia	3
Banka "Finkatua"	210
Atzeritar Banka	2
BIZKAIA	
Bilboko Bankua	61
Bizkaiko Bankua	74
Banka "Finkatua"	224
Atzeritar Banka	12
NAFARROA	
Baskonia Bankua	59
Banka "Finkatua"	234
Atzeritar Banka	4

Iturria: Banka pribatuaren 1987ko Urtekaria (Banku-Batzorde Gorena) eta elaborazio propioa. Helbide sozialaren arabera lurraldez sailkatuta.

Taula honetatik zera ondorioztatzen dugu:

1. Atzeritar Bankaren presentzia oso txikia da lau lurraldeetan. Gipuzkoan ez da Bankaren bulego guztien %1 izatera ere iristen.
2. "Euskal Herriko Bankak" lurralde bakoitzean garrantzi erlatibo txikia du. Bizkaiko portzentaia (%36) da Bankaren bulego guztiekiko erlaziorik handiena mantentzen duena. Duda-rik gabe, Bilbo-Bizkaia Bankuaren eraginaren ondorio da.

C. Taula: Aurrezki-Kutxa Konfederatuak

	Bulego-kopurua
ARABA	
Gasteizeko Aurrezki-Kutxa eta Bahitetxea	74
Arabako Aurrezki-Kutxa	71
Bilboko Aurrezki-Kutxa	3
Bizkaiko Aurrezki-Kutxa	1
Donostiako Aurrezki-Kutxa	1
Gipuzkoako Kutxa	1
GIPUZKOA	
Gipuzkoako Kutxa	117
Donostiako Aurrezki-Kutxa	90
BIZKAIA	
Bilboko Aurrezki-Kutxa	140
Bizkaiko Aurrezki-Kutxa	154
Caixa de Pensions	1
NAFARROA	
Inuñeko Aurrezki-Kutxa	72
Nafarroako Aurrezki-Kutxa	138

Iturria: 1987ko Urtekari estatistikoa (Espainiako Aurrezki-Kutxen Konfederazioa) eta elaborazio propioa.

Taula honetan oinarrituz zera ikusten dugu:

1. Kutxen presentzia jatorrizko lurraldeaz kanpo, oso txikia da.
2. Gaur arte, gure ingurunean Caixa de Pensions kataluniarrak soilik ireki ditu bulegoak, eta banaka batzuk bakarrik.

3. Araban, Gipuzkoa eta Bizkaiko Kutxen presentzia testimonial hutsa da.

D. Taula: Baliabideen bolumenaren arabera

Ordena zk. (1)	Erakundeak	Besteren Baliabideak (milioi pta.tan) (2)
4	Bilboko Bankua	1.748.689
8	Bizkaiko Bankua	1.125.912
24	Bizkaiko Aurrezki-Kutxa	318.307
25	Gipuzkoako Kutxa	291.484
26	Bilboko Aurrezki-Kutxa	288.771
35	Gipuzkoako Bankua	204.188
41	Nafarroako Aurrezki-Kutxa	186.728
46	Donostiako Aurrezki-Kutxa	167.657
72	Bilboko Banku Industrial	95.556
73	Arabako Aurrezki-Kutxa	93.946
90	Gasteizeko Aurrezki-Kutxa eta Bahitetxea	75.134
94	Baskonia Bankua	71.235
103	Iruñeko Aurrezki-Kutxa	61.284
130	Gasteizeko Bankua	28.306
149	Gipuzkoako Banku Industrial	18.311

(1) Estatuko Ranking-aren ordena zk.

(2) "Hartzekodunak" eta "Jesapenak" hartzen ditu

Iturria: Banka Pribatuaren Balantzeak eta Estatistikak (Banku-batzorde Gorena). Aurrezki-Kutxen Balantzeak (Espainiako Aurrezki-Kutxen Konfederazioa) eta elaborazio propioa. Datuak, 88-9-30ekoak.

D taulan, oraindik ondorio estatistikoetarako existitzen den banaketa ofiziala mantendu egin dugu. Ondorengo baieztatzen dugu:

1. Euskal Herriko Bankak eta Kutxek estatuko eremuan, orokorki, Besteren Baliabideetan maila handia dute.
2. Ranking espainiarraren 218 postuetatik, 15 erakundeetatik 13 ranking horretako lehenengo erdian daude kokaturik. Bizkaiko Bankua, Bizkaiko Kutxa eta Gipuzkoako Kutxa lehenengo 26 postuen artean daude.

E. Taula: Aurrezki-Kutxen Ratioak

	<i>Bilboko Kutxa</i>	<i>Bizkaiko Kutxa</i>	<i>Donostiako Kutxa</i>	<i>Gipuzkoako Kutxa</i>	<i>Gasteizko Kutxa</i>	<i>Arabako Kutxa</i>	<i>Iruñeko Kutxa</i>	<i>Nafarroako Kutxa</i>
Enplegatu-kop.	1.063	1.127	592	1.169	319	352	300	800
Bulego-kop.	148	159	93	121	74	75	72	141
Batezbesteko Akt. tot. (milioi pta.)	309.875	342.038	162.820	325.604	78.963	95.054	61.118	198.138
Ustiapen-gastu/BAT (%)	3,04	2,83	2,94	2,75	3,18	3,45	3,57	3,20
Enplegatu/Bulego	7,18	7,09	6,36	9,66	4,31	4,69	4,17	5,67
BAT/enplegatu (milioi pta.)	288	280	268	263	236	259	196	240
BAT/bulego (milioi pta.)	2.071	1.985	1.706	2.543	1.017	1.216	815	1.361
Mozkin/BAT (%)	0,26	1,74	1,14	2,16	0,83	1,04	1,92	1,82

Iturria: Kutxen urteko txostenak, Aurrezki-Kutxen eta EAKK-aren Balantzeak eta elaborazio propioa. 87-XII-31ko datuak.

F. taula: L.K.A. eta Estatuko erakundeen ratioak

	Estatuko Kutxak (1)	Estatuko Banka Pribatuaren totala	Lan Kide Aurrezkia
Enplegatu-kop.	70.200	157.600	1.234
Bulego-kop.	13.600	16.600	180
Batezbesteko Aktibo Totalak (milioi pta.)	13.623.000	29.980.000	227.207
Ustiapen-gastu/BAT (%)	3,19	2,67	2,8
Enplegatuak bulegoko	5,17	9,5	6,85
BAT/Enplegatu (milioi pta.)	194	190	184
BAT/Bulego (milioi pta.)	1.003	1.808	1.262
Mozkinak BATekiko (%)	1,34	1,02	1,9

(1) Aurrezki-Kutxa Konfederatuak, Espainiako Aurrezki-Kutxen Konfederazioa eta Aurrezki-Kutxa Postala hartzen dira.

Iturria: Espainiako Aurrezki-Kutxen Konfederazioaren LVII. Batzarre Orokorreko PONENTZIA. Madril, 1988. Lan Kide Aurrezkiaren urteko txostena eta elaborazio propioa. Datuak, 87-XII-31koak dira.

E eta F tauletan oinarrituz, aztertzen ari garen Kreditu-erakundeen hiru motentzat, eraginkortasun, produktibitate, etab. i buruzko ondorioak lortu nahi dira. Aurrezki-Kutxa bakoitzak eta Lan Kide Aurrezkiak datu individualizatuak argitaratzen dituztenez, horiek landu ditzakegu.

Bankak, ikusi ahal izan dugunez, ia beti gure ingurunean eta kanpoan lan egiten du aldi berean (askotan, kanpoan duen presentzia barnekoa baino handiago da). Hau dela eta, Estatuko Banka pribatuari bere osotasunean dagozkion datuak soilik erabil ditzakegu eta honek errore txiki batera eramango gaitu. Azkenik, eta erreferentziaren bat izan dezagun, Estatuko Aurrezki-Kutxen multzoaren datuak ere azalduko ditugu.

Zera ikusten da:

1. Gure inguruko kutxarik gehienetan, erakunde bakoitzaren tainarekiko (hilabeteko balantzeen batezbestekoen edo batezbesteko aktibo totalen bidez neurtua) mozkin-maila beneratua da.
2. Lan Kide Aurrezkiaren errentagarritasuna ona da, taulako Aurrezki-kutxarik hoberenaren atzean kokatzen delarik.

3. Gure inguruneko Aurrezki-kutxen batezbesteko errentagarritasuna, Lan Kide Aurrezkiarena bezala, Estatuko Kutxa-multzooaren errentagarritasunaren gainetik dago.
4. Bankaren errentagarritasuna berriz, Estatuko kutxenaren azpitik dago.
5. Enplegatu bakoitzak maneiatzten duen diru-bolumena (produktibitatearen neurririk hoberena), batezbesteko Aktibo Totalen eta enplegatuen arteko zatiketak ematen digu. Koefiziente hau ia berdina da Estatu mailako Aurrezki-kutxa eta Banka pribatuan. Lan Kide Aurrezkiak koefiziente zertxobait txikiagoa aurkezten du. Gure inguruneko kutxek lasai gainditzen dituzte aurreko koefizienteak, egoera hobea erakutsiz.
6. Bulego bakoitzak maneiatzten duen diru-bolumena (produktibitatearen zeharkako beste adierazle bat) Estatuko Bankan, Estatuko Aurrezki-kutxetan baino %80 handiagoa da. Gure inguruko Aurrezki-kutxa guztiek, batek ezik, eta baita Lan Kide Aurrezkiak ere Estatuko Kutxen maila gainditu egiten dute. Egoerarik hoberenean daudenak, Bizkaiko Kutxak eta Gipuzkoako Kutxak alegia, Bankaren zifrak gainditu egiten dituzte.
7. Aurreko bi paragrafoen arteko diferentzia itxurazko eta partzialak, sukurtsal-kopuru eta enplegatu-hornidurari buruzko estrategia desberdinak azaltzen dituzte. Laburbilduz, Bankek erlatiboki kutxek baino bulego gutxiago edukitzea eta enplegatu-kopuru handiagoz hornitzea nahiago dutela esan daiteke.
8. Beste arazo garrantzitsu bat ustiapen-gastuen (orokorrak, administraziokoak, pertsonalarenak, amortizazioak, etab...) eta batezbesteko aktibo totalen arteko erlazioa ezagutzea da. Zenbat eta erlazio handiagoa, are eta okerragoa izango da errentagarritasuna.

Erlazio hori Estatuko kutxa-multzooan Estatuko banka totalen baino handiagoa da. Gure inguruko Aurrezki-kutxarik gehienena eta Lan Kide Aurrezkiarena, ez da Estatuko Kutxenaren mailara iristen, baina guztien indizea Estatuko Bankarenaren gainetik dago. Aipagarria da Gipuzkoako Kutxaren egoera ona, zeinak duen koefiziente txikia Estatuko bankarenekin ia pareka bait daiteke.

G. Taula: Kutxazain automatikoen kopurua

Bilboko Aurrezki-Kutxa	126
Bizkaiko Aurrezki-Kutxa	116
Donostiako Aurrezki-Kutxa	58
Gipuzkoako Kutxa	53
Gasteizeko Aurrezki-Kutxa	23
Arabako Aurrezki-Kutxa	24
Iruñeko Aurrezki-Kutxa	35
Nafarroako Aurrezki-Kutxa	93
Aurrezki-Kutxak, guztira	528
Lan Kide Aurrezkiak	86
Banka Pribatua	93*

(*) 1987ko martxoko datua.

Iturria: Espainiako Aurrezki-kutxen Konfederazioaren 1987ko urtekari estatistikoa. Lan Kide Aurrezkiaren 1987ko txostena. SERVIRED-VISA sarearen kutxazain-zerrenda. 1987ko martxoa. TELEBANCO-4B sarearen kutxazain-zerrenda. 1987ko martxoa. Elaborazio propioa. Datuak, 1987-XII-31koak dira.

G taulan, gure inguruneko kreditu-erakundeek dituzten kutxazain automatikoak azaltzen dira. Sukurtsal-sare zabala eta hau osatzen duen kutxazain automatikoen sare zabala dira Aurrezki-kutxen ezaugarriak. Sukurtsal eta kutxazainekin, gainditzea benetan zaila den banaketa-sarea eta publikoarekiko atentzio ezinhobea osatu dute.

Lan Kide Aurrezkiak eta Bankek beren sareekin ere laguntzen dutenez, gure inguruneko bi Komunitate Autonomoetan eta bereziki Euskal Herrikoan, Europako gainerako herrialdeetako ino-lako inbidiarik ez dien publikoa atenditzeko sarea dugu.

H. Taula: Banku eta Kutxen errentagarritasun-rankinga Europan

1. Udruzena Banka Hrvatska	Jugoslavia
2. Udruzena Beogradska Banka	Jugoslavia
3. Yorkshire Bank	Erresuma Batua
4. Instituto Mobiliare Italiano	Italia
5. Magyar Hitel Bank	Hungaria
6. SG Warburg	Erresuma Batua
7. Cassa di Risparmio di Verona, Vicenza & Belluno	Italia
8. Banco Popular Español	
9. Gipuzkoako Kutxa	
10. Credito Bergamasco	Italia
11. Bankinter	

Iturria: "Expansión" aldizkaria eta elaborazio propioa. Batezbesteko aktibo totalerikiko mozkinak.

I. Taula: Estatu-mailako errentagarritasun-rankinga	Mozkin Aktiboa	Akt. bolumenaren araberako ranking-posizioa
Banco Popular	% 2,19	104
Gipuzkoako Kutxa	% 2,18	300
Bankinter	% 2,12	179
Banco de Sabadell	% 1,92	210
Bizkaiko Kutxa	% 1,71	293
Banko Bilbao Vizcaya	% 1,66	33
Caja de Galicia	% 1,61	243
Banco Central	% 1,52	41
Banco de Santander	% 1,40	68
Caixa de Catalunya	% 1,33	212

Iturria: "Expansión" aldizkaria eta elaborazioa propioa. Mozkin Batezbesteko Aktibo Total; 300.000 milioi pta. baino Aktibo handiagoko erakundeak.

Errentagarritasunari dagokionez E eta F tauletan ikusitakoa osatuz, Elkarte Europarreko puntako erakundeen artean gure inguruneke erakunde bakarra (Gipuzkoako Kutxa) dagoela ikus daiteke. Honekin batera estatu mailako beste hiru banku agertzen dira.

Errentagarritasunari dagokionez I taula, E eta F taulen beste osagarri bat da. Hemen, Estatu-mailako tamaina ertain eta handiko 10 erakundeen errentagarritasuna eta europar ranking orokorrean duten posizioa agertzen dira. Gure inguruneke hiru erakunde azaltzen dira; oso errentagarritasun interesgarriaz, baina tamainaren araberrako ranking europarrean oso posizio apala erakutsiz.

Ia taula honetan bakarrik oinarrituz, errentagarritasuna eta tamaina alderantzizko erlazioan daudela baieztatu daiteke.

Euskal koiuntura ekonomikoa eta finantz erakundeak

J taulan, Estatuako multzoarekiko euskal partaidetza ikuspuntu bikoitzetik analizatzen da. Alde batetik gordailu totalen, hau da, aurrezkiaren bilakaera aztertzen da, eta bestetik, barne-produktu gordinarena (BPG), hau da, zentzu zabalean iharduerarena.

Azken hamarkadan, Estatuako totalarekiko Hego Euskal Herriko Komunitate Autonomoetako gordailu totalen partaidetza (gorabehera txiki batzuekin) gorantz joan dela ikus daiteke.

Euskal Herriko BPG-ak Estatuarenean izan duen partaidetza ordea, beherantz joan da azken hamarkadan zehar. Beherakuntza hori gainera Euskal Herriko Komunitate Autonomoari dagokio, zeren eta Nafarroako Komunitate Autonomoak Estatuako multzoan izan duen partaidetza hamarkada osoan konstante mantendu bait da.

Kontzeptu bien analisi bateratuak, euskal pisu espezifikoak Estatuako multzoan indarra galtzen zuen bitartean, koiuntura orokorra aurkakoa izan arren banku-sistemak partaidetza gehitu egin duela baieztatzeko bidea ematen du.

J Taula: Estatuko totalarekiko % partaidetza

Urtea	<i>Banku-sistemako gordailu totalak</i>		<i>Barne-produktu gordina</i>	
	<i>E.H.K.A.</i>	<i>Nafarroako K.A.</i>	<i>E.H.K.A.</i>	<i>Nafarroako K.A.</i>
1979	6,09	1,24	6,50	1,50
1981	7,82	1,54	6,30	1,50
1983	8,04	1,58	6,60	1,50
1985	7,88	1,69	6,20	1,50
1987	7,90	1,60	6,00	1,50

Oharrak: Gordailu publikoak eta pribatuak hartu dira. Banku-sisteman, Banka Pribatua, Aurrezki-Kutxak, Kreditu-kooperatibak eta Kutxa Postala sartzen dira.
Iturria: Espainiako Bankuaren Buletin Estatistikoa.
 Espainiako Errenta Nazionala. Bilboko Bankua.

K Taula: Sektore pribatuaren gordailuak

	<i>Saldoak milaka milioi pta.tan</i>				
	<i>Kutxak</i>	<i>K. Postala</i>	<i>B. Pribatua</i>	<i>Kreditu-koop.</i>	<i>TOTALA</i>
E.H.K.A.	919,50	9,60	770,50	210,30	1.909,90
Nafarroako K.A.	202,70	2,30	201,90	29,50	436,40
Estatua	10.429,40	522,80	14.893,30	1.195,00	27.040,50

	<i>Merkatu-kuota (%)</i>				
	<i>Kutxak</i>	<i>K. Postala</i>	<i>B. Pribatua</i>	<i>Kreditu-koop.</i>	<i>TOTALA</i>
E.H.K.A.	48,15	0,50	40,34	11,01	100,00
Nafarroako K.A.	46,45	0,53	46,26	6,76	100,00
Estatua	38,57	1,93	55,08	4,42	100,00

Oharrak: Ez dira ez Kontu Bereziak eta ez Jesapenak sartzen. Kreditu-kooperatiben artean Lan Kide Aurrezkiak dago, zeinak saldo guztiak Gipuzkoan zentralizatzen bait ditu. Horregatik, Gipuzkoako merkatu-kuota gainbaloraturik eta gainerakoetakoa infrabaloraturik dago. Gainera, eragin txikiagoz bada ere, gauza bera gertatzen da Bizkaian Baserritarren Kutxarekin. Datuak: 1988ko Ekainekoak.

Iturria: EAKK-aren txosten konparatiboa. 1988ko bigarren hiruhilabetea.

Finantz erakundeak komunitate autonomoetan

Orain arte, Euskal Herriko erakundeak banandurik analizatu ditugu. Ikus dezagun orain, datu posibleak Autonomiaka taldekatuz zer agertzen zaigun.

K taulan erakunde-talde desberdinen artean Sektore Pribatuko gordailuen merkatuaren portzentaiazko banaketa aztertzen da. Gordailutzat kontu korronteak, ageriko aurrezkiak eta eperako aurrezkiak hartzen dira.

Taulatik ateratzen den lehenengo ondorioa, Euskal sektore pribatua, Estatukoa baino "kutxazale"agoa dela da. Bai Euskadiko Komunitate Autonomoan eta baita Nafarroakoan ere kutxetako gordailuak %50era iristen dira eta kreditu-kooperatibak kutxen artean sartuz gero, kopuru hori gaintu egiten da. Estatuan kutxen partaidetza ez da %40era iristen.

Atera daitekeen bigarren ondorioa, kreditu-kooperatiben, hau da Lan Kide Aurrezki eta Baserritarren Kutxaren presentzia (Ara-ba, Bizkaia eta Nafarroan) garrantzitsua da. Hemen %10a gaintu egiten dute eta Estatuan erakunde-mota honek ez du %5a lortzen.

Ondorio hauek, nabardura batzuez, Euskal Herriarentzat, osotasunean harturik nahiz lurralde bakoitzarentzat dira baliagarri.

L Taula:
Kreditu totala

	Saldoak milaka milioi pta.tan				
	Kutxak	K. Postala	B. Pribatua	Kreditu-koop.	TOTALA
E.H.K.A.	56,09	4,00	872,50	142,70	1.580,10
Nafarroako K.A.	117,30	1,00	120,50	21,60	260,40
Estatua	6.817,30	353,50	13.789,80	664,40	21.625,00

	Merkatu-kuota (%)				
	Kutxak	K. Postala	B. Pribatua	Kreditu-koop.	TOTALA
E.H.K.A.	35,50	0,25	55,22	9,03	100,00
Nafarroako K.A.	45,05	0,38	46,28	8,29	100,00
Estatua	31,53	1,63	63,77	3,07	100,00

Obarrak: Kreditu-kooperatiben artean Lan Kide Aurrezki dago, zeinak saldo guztiak Gipuzkoan zentralizatzen bait ditu. Beraz Gipuzkoako Merkatu-kuota gainbaloraturik dago eta gainerako lurraldeetako infraloraturik (Ez dugu gainerako lurraldeetako zifrak zuzentzeko informaziorik). Bestalde, eragin txikiagoz baldin bada ere, arazo berbera dugu Bizkaian Baserritarren Kutxarekin. Datuak: 1988ko Ekainekoak.

Iturria: EAKK-aren txosten konparatiboa. 1988ko bigarren hiruhilabetea.

M Taula: Finantz sistemaren bulego-kopurua

	Bulego-kopurua				
	Kutxak	K. Postala	B. Pribatua	Kreditu-koop.	TOTALA
E.H.K.A.	654	80	739	177	1.650
Nafarroako K.A.	209	29	299	112	649
Estatua	12.020	1.783	16.565	3.104	33.472

	Merkatu-kuota (%)				
	Kutxak	K. Postala	B. Pribatua	Kreditu-koop.	TOTALA
E.H.K.A.	39,64	4,85	44,79	10,72	100,00
Nafarroako K.A.	32,20	4,47	46,07	17,26	100,00
Estatua	35,91	5,33	49,49	9,27	100,00

Iturria: EAKK-aren txosten konparatiboa. 1988ko bigarren hiruhilabetea. Datuak: 1988ko Ekainekoak.

L taulan, finantz merkatua, erakundeen kreditu-inbertsioen ikuspuntutik analizatzen da. Erabiltzen diren zifrak erakunde desberdinek emandako mailegu, kreditu eta letra-deskontuetatik amortizatzeke geratzen diren saldoak isladatzen dituzte.

Ikuspuntu honetatik ere, euskal merkatua estatukoa baino "kutxazale"agoa da, nahiz eta hain nabarmena izan ez.

Berriro ere aipagarria da kreditu-kooperatibek euskal merkaturan duten partaidetza.

M taulan ikus daitekeenez, erakunde-mota bakoitzaren bulego-proporzioa berdina da bai Euskal Herriko komunitate Autonomoan, bai Nafarroan eta baita Estatuko gainerako lurraldeetan ere.

Merkatu guztietan Banka-multzoaren presentzia handiagoa dago; bulego guztien %45 gutxi gorabehera alegia. Ondoren kutxak daude gutxi gorabehera %40arekin eta %10arekin kreditu-kooperatibak. Gainerako %5a Kutxa Postalari dagokio.

N taulan, Euskal Herriko erakundeen talde desberdinek Estatuko osotasunean duten partaidetza aztertzen da.

Bertan kreditu-kooperatiben tamaina garrantzitsua ikusten da. Estatu osoko kooperatibetako gordailu eta kreditu guztien bostena dute gutxi gorabehera.

N Taula: Estatu osoko partaidetza-portzentaia

	Sektore Pribatuaren gordailuak				
	Kutxak	K. Postala	B. Pribatua	Kreditu-koop.	TOTALA
E.H.K.A.	% 8,80	% 1,80	% 5,20	% 17,60	% 7,10
Nafarroako K.A.	% 1,90	% 0,40	% 1,40	% 2,50	% 1,60
Estatua	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

	Sektore Pribatuari emandako kredituak				
	Kutxak	K. Postala	B. Pribatua	Kreditu-koop.	TOTALA
E.H.K.A.	% 8,10	% 1,30	% 6,50	% 21,00	% 7,40
Nafarroako K.A.	% 1,70	% 0,30	% 0,90	% 3,30	% 1,20
Estatua	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

	Bulego-kopurua				
	Kutxak	K. Postala	B. Pribatua	Kreditu-koop.	TOTALA
E.H.K.A.	% 5,40	% 4,50	% 4,50	% 5,70	% 4,90
Nafarroako K.A.	% 1,70	% 1,60	% 1,80	% 3,60	% 1,90
Estatua	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

Iturria: EAKK-aren txosten konparatiboa. 1988ko bigarren hiruhilabetea. Datuak: 1988ko Ekainekoak.

Bestalde Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Kutxek Estatu osokoa duten pisu espezifikoa komunitatean diharduen Bankarena baino zertxobait handiagoa da, hala gordailuei nola kredituei dagokionean. Neurri txikiagoan bada ere, Nafarroako komunitatean ere kutxen pisu espezifikoa handiagoa da.

Euskal Komunitate Autonomoan kutxek Estatu osokoarekiko duten bulego-kopurua, banka-bulegoena baino handiagoa da. Nafarroako Komunitate Autonomoan Estatu osoarekiko Kutxek eta Bankuek duten bulegoen pisu espezifikoa ia-ia bera da.

O taulan banku-bulegoen produktibitatea aztertzen da; produktibitate hori bulegoek gordailuak erakarri eta mailegu, kreditu eta efektu-deskontutan inbertitzeko duten ahalmen bezala ulertzen delarik.

Gordailuak erakartzen, Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Kutxen bulegoak Bankarenak eta Kreditu-kooperatibenak baino nabarmenki produktiboagoak dira. Aurrezki-kutxen bulego hauek estatuko gainerakoak baino produktiboagoak ere badira.

Nafarroako Komunitate Autonomoan antzeko fenomeno gertatzen da.

Kreditu-inbertsioei dagokienez, E.H.ko Komunitate Autonomoan kontrako fenomeno gertatzen da, hau da, Bankaren bule-

O Taula: Finantz sistemaren ratioak (1988ko ekaina)

	<i>Sektore Privatuaren gordailuak bulegoko (milioi-pta.tan)</i>				
	<i>Kutxak</i>	<i>K. Postala</i>	<i>B. Pribatua</i>	<i>Kreditu-koop.</i>	<i>BATEZBESTEKO TOTALA</i>
E.H.K.A.	1.406	120	1.043	1.188	1.158
Nafarroako K.A.	970	79	675	263	672
Estatua	868	293	899	385	808

	<i>Sektore Privatuari emandako kredituak bulegoko (milioi pta.tan)</i>				
	<i>Kutxak</i>	<i>K. Postala</i>	<i>B. Pribatua</i>	<i>Kreditu-koop.</i>	<i>BATEZBESTEKO TOTALA</i>
E.H.K.A.	773	50	1.171	759	915
Nafarroako K.A.	522	28	398	188	385
Estatua	520	172	801	207	611

	<i>Kreditu-portzentaia gordailuekiko (%)</i>				
	<i>Kutxak</i>	<i>K. Postala</i>	<i>B. Pribatua</i>	<i>Kreditu-koop.</i>	<i>BATEZBESTEKO TOTALA</i>
E.H.K.A.	54,96	41,67	112,34	63,91	79,03
Nafarroako K.A.	53,77	34,78	58,94	71,19	57,24
Estatua	59,89	58,63	89,05	53,67	75,65

Iturria: EAKK-aren txosten konparatiboa. 1988ko bigarren hiruhilabetea. Datuak: 1988ko Ekainekoak.

goak dira mailegu-kopuru handiena kokatzea lortzen dutenak, Kutxen bulegoek urrunera jarraitzen dietelarik.

Nafarroako Komunitate Autonomoan ere, kredituen arloan, Aurrezki-kutxen bulegoak Bankarenak baino produktiboagoak dira.

Bai kreditutan eta baita gordailutan ere Euskal Herriko Finantz erakundeak estatuko gainerakoak baino produktiboagoak dira, hala taldeka nola osotasunean analizaturik.

Taularen hirugarren atalean, gordailuekiko kredituen portzentaia analizatzen da. Portzentaia honek banka-iharduera tipikoan erakundeen inbertsio-ahalmena adierazten du.

Taula hau analizatzeko ordea, salbuespen bat egin beharra dago: Aurrezki-Kutxa eta kreditu-kooperatiben kasuan, zeintzuen ihardun-eremua Euskal Herriko eta Nafarroako Komunitate Autonomoetara mugatzen den, gordailurik gehienak, beste komunitate Autonomoetatik/tara egindako trasbase txiki batzuk ezik, Komunitatean bertan lortu eta berrinbertitzen dira. Horrez gain, nahitaezko inbertsio (koefiziente legalak) eta borondatezkoei (ibilgetua, baloreak, etab...) aurre egin behar izaten zaie.

Egoitza nagusia, aipatzen ari garen komunitateetan ez duten erakundeak ordea, hasteko komunitate arteko fondo-trasbasea egin dezakete, eta gainera, bere inbertsio-politika, kredituena alde batera utziz, egoitza nagusian kontabilizatzen dute geografikoki.

Salbuespen hau egin ondoren, esan beharra dago Euskal Herriko Komunitate Autonomia Bankaren fondoen hartzaile dela. Hau da, lortzen dituen gordailuak baino mailegu gehiago ematen ditu. Ez da gauza bera gertatzen Nafarroako Komunitate Autonomoan.

Kutxei dagokienez, gordailuekiko duten kreditu-portzentaia Estatuko kutxetakoaren azpitik dago. Honek, Euskal Herriko eta Nafarroako Komunitateetan aurrezkirako joera handiagoa dagoela adieraziko luke.

Euskal erakundeen gaur egungo arazoak

Beste batzuen artean ondorengoak aipatuko genituzke:

- Nazioartekotasun-maila apala. Nazioarteko merkatuetan euskal presentzia txikia.

- Gure inguruneko erakundeen tamaina erlatibo txikia, honek dituen abantaila eta eragozpen guztiakin.
- Ustiapen-gastu handi samarrak. Europako erakundeekin alderatuz gero, kasuen arabera %20-%40 inguruan murriz daitezke.
- Finantz marjina (mailegu eta balore bidezko sarreraren eta besteren baliabideen ordainketengatik) gastuen arteko diferentzia) jaitsi egin behar da beste herrialde europar batzuetakoarekin parekatzeko. Inflazio txikiagoak eta defizit publikoak gutxiago eragindako merkatuak sarrerak finantz gastuak baino gehiago jaitsi eraziko lituzke.
- Ustiapen-kosten murriztapena, berrikuntz erritmoa mantentzeko beharrezkoak diren teknologi inbertsioen kontra egongo litzateke neurri batean eta gaur eguneko sukurtsal-sarea mantentzearen kontra (euskal erakundeen puntu indartsua eta atzeritar erakundeak sartzeko muga).
- Publikoa eta bezeroak oso exigente bilakatzen ari dira. Beren gordailuentzat errentagarritasun eta likidezia handiagoa eta beren mailegientzat baldintza onuragarriagoak eskatzen dituzte normala denez.
- Bezeria, kontsumitzaile gisa dituen eskubideez gero eta gehiago jabetzen ari da. Tratu ona, informazio argia eta segurua, etab... nahi ditu. Horregatik, kreditu-erakundeek kalitatean konpetitu behar dute.
- Gure ingurunean produktu eta zerbitzu berriak eskaintzen dira egunero; kanpotik ekarriak zein bertan fabrikatuak. Kopiatuak izan daitezke edo norberak sortuak. Baina nolahi ere, laguntza informatiko, finantz teknologia eta pertsonal espezializatua- ren dosi handiak behar dituzte. Guzti horrek kostuak eta denbora erabiltzea dakartza.
- Banku eta kutxek errentagarri izaten jarraitu behar dute, baina aurreko arrazoietakoa askorengatik irabazi-maila gal dezaketela kontuan izanik. Berrikuntzak, gizarte-ekintza, dibidendu-banaketa, etab... mozkin-maila bat duenean egin ahal izango ditu. Gainera zuzendaritza-ekipoen gestio onaren adierazle gisa gizarateak mozkinari (besteak beste) bigiratzen dio.
- Mozkinak, klasikoak ez diren beste bide batzuetan ere bilatu beharko dira. Publikoa ez doa kutxen produktu eta zerbitzu propioen bila soilik; gero eta gehiago Kutxa eta Bankuei besteen

produktuak (Balore publiko eta pribatuak bereziki) ere zuzenki eskaini ditzatela eskatzen ari zaie. Europako gainerako herrialdeetan bezala berrikuntza guzti hauek eta produktu klasikoak, prezio errealistetan gainera, kobratu behar dira, gordailuak eta maileguak dagoeneko prezio errealistetan kotizatzen diren bezala.

Zerrenda luza daiteke, baina behar bada arazorik ulergarrienak eta aipagarrienak adierazi ditugu. Guzti hau, Euskal Herriko finantz erakundeak etorkizuna globalki erabakitzera eramaten ari da, gerora arazo partzialtako bakoitzaren inguruko erabakiak hartu ahal izateko.

Egin beharreko galderarik garrantzitsuenak ondorengoak dira: Zer izan nahi dut etorkizunean? Zer espero du gizarteak erakunde bakoitzarengandik? Zeintzuk dira arazo hauei aurre egiteko beharrezko tamaina eta egitura?

Erakunde bakoitzarentzat erantzunak desberdinak izango direnez, bezero, merkatu eta produktuei buruzko aukerak ere desberdinak izango dira, aukera horiek burutzeko dimentsio eta baliabideak desberdinak izango diren bezalaxe.

Euskal kreditu-erakundeentzako 1992ko horizontea

Nahitaezkoa da gure kreditu-erakundeentzako erreferentzi datatzat 1992ko abenduaren 31z hitz egitea. Baina ezin dugu kalean egiten den bezala egin: "92a baino lehen eta ondoren..."

1992ko abenduaren 31n (ikusiko dugu atzerapenarekin egiten den ala ez) finantz espazio europar librea sortu beharko da. Hitz gutxitan esateko, Merkatu Batuan kapital-zirkulazio librea eta kreditu-erakundeen aldetik finkatze-askatasuna egongo dela esan nahi du.

Ordurarte, Espainiar estatu osoa, Europako Elkartearikiko Espainiaren Atxekipen-Akordioetan ezarritakoaren menpe egongo da. Arlo honetan zera ezartzen du:

- a) 1985etik 1992rarte Espainiak merkatuko ekonomi premien klausula ("oraingoz aseta gaude"ren antzeko zerbait) eska dezake, Komunitateko Banku eta Kutxen finkamendua diskrezionalki mugatzeko.

- b) Merkatu espainiarrean, bertan finkatzen den Atzerritar Bankarentzat mugak daude gordailuak erakartzeko. Muga hauek poliki-poliki urritzen joango dira 1993an guztiz desagertu arte.
- c) Atzerritar banka honek ezingo ditu hasieran 3 bulego baino gehiago eduki, bulego nagusia barne. Gerora gehituz joan daitezke, 1993an libre geratuko direlarik.

Baina maiz Atzerritar Banka Estatuan aspaldi sartu zela ahaztu egiten da. Espainiako Atzerritar Banka erregulatzen zuen 1978ko ekaineko erret dekretua argitaratu zenean sartu ziren erakunde hauek Estatuan, eragikera guztiarekin. Aurretik, lau salbuespen zeuden betidaniko mendeetako presentziaz, zeintzuek Espainian emakida indibidualen bidez iharduten bait zuten.

Gaur egun, erret dekretu bidez Espainian ezarritako atzerritar erakunde hauek 50 inguru banku dira. Horrez gain banku atzerritarrek krisian zeuden espainiar bankuak erosi dituzte. Beste banku batzuetan atzerritar partaidetza gehiengoa da; estatutu berezidun bankuak ere badaude eta badaude kapital-arrisku erregimeneko bankuak ere, kapital atzerritar eta nazionalaren artean.

Beraz, ia banka-espezialitate ezagun guztiak estaltzen dituzten mundu osoko bankuak (hauen arteko indartsu eta famatuena) ditugu. Banka honek dagoeneko sartu du eragin konkurriztaile eta berritzailea, eta Estatuko Finantz Erakundeek (eta Euskal Herrikoak) positiboki erreakzionatu dute. Atzerritar bankaren aurrean guztiz ohiturik ez bagaude ere, berarekiko ondo prebenituta gaudela behintzat esan daiteke.

Euskal Herriko eta Nafarroako gure komunitateetan banka atzerritarra ez da beste toki batzuetan bezainbeste sartu. Lehen aipaturiko arrazoiez gain zera gogoratu behar da: ahalbidetutako sukurtsalen dosifikazioa dela eta, banka atzerritarrak nahiago izan duela Madril, Bartzelona eta beste hiri garrantzitsuenetatik hastera. Azkenaldi honetan, eskainitako estatistikaz aparte, Euskal Herriko eta Nafarroako Komunitate Autonomoetako hiriburuetan sukursal berriak ireki dira.

Eta adierazgarria da hau ere: Euskal Herriko Kutxa eta Bankuak edo gure ingurunean finkatuak, Estatuko gainerako herrialdeetan banka atzerritarrarekin buruz buru daude.

Bestalde, 1986tik Estatu espainiarra eta ondorioz baita euskal banka edo gure ingurunean finkatua ere, Europako Elkarte Ekonomikoko erregulazio bankario eta orokorrari atxekirik dago. Are gehiago: Estatu espainiarrean, Europar Elkarteko proiektu mote-

letan oinarritutako barne-arauak ezarri dira kreditu-erakunde espainiarrentzat. Aurrikuspen honi esker, gure banku eta kutzak komunitateko lerroekiko aurrez doitzen dira maiz.

Badirudi Kutxa Atzerritarrez ahazten garela. Esandako ia guztia hauei ere aplika dakieke, Estatu espainiarraren sarrerarako baldintza legalei dagokienean. Baina ez Espainiaren atxekipenerako negoziatioetan eta ezta gaur eguneko finantz bitiztan ere, ez da Atzerritar Kutzek arazo serioak sor ditzaketenik pentsatu.

Europar Kutzek, Euskal Kutzek bezala berezko lurraldearekiko atxekimendu-zentzua dute. Europar komunitatearen bizitzak urte batzuk baditu dagoeneko eta Europar Kutzek ezin izan dute beste Estatu batzuetara salto egin. Honek ez du beren bezeri sektore baten nazioarteko arazoak alde batera utzi dituztenik esan nahi: korrespontsali akordio bidez edo tamaina handiagoko akordio bidez ebatzi dituzte.

1993eko urtarriletik aurrera Elkarteko finantz espazio libre sortutakoan, beren estiloa aldatu egingo ote da? Europar Kutxa handiek Banku hedatzaile handi bezala jokatu ote dute? Oraingoz eta salbuespen gutxi batzuk ezik, ez dirudi beren estrategia handiak nabarmenki hortik joango direnik.

Gure Komunitate Autonomoetan lan egin nahi duten Kutxa eta Banka Atzerritarrek, kontuan izan beharreko faktore gehigarria izango dute. Merkatu berrietara sartzeko, dagoeneko beste finantz erakunde hedatzaile batzuk topatu dituzten berezko mugak dira: enpresen barneko kulturak (gauzak egiteko modua) eta herri bakoitzaren kultura nazionala. Eta gure ingurune berezko hesi hau, gure kreditu-erakundeen alde joka dezakeena, herriaren, publikoaren eta bezeriaren ondarea ere bada.

Eta orain alderantziz: Nahi izango al dute euskal finantz erakundeek Estatutik kanpora irten? Nola? Nora? Erantzun hauek, lerro batzuk goragoko beste haien ondoren planteatu beharko lirarteke... Zer izan nahi dut etorkizunean? Zer espero du gizarteak erakunde bakoitzarengandik?, etab...

1993ko urtarrilaren 1a garrantzitsua da gure Kutxa eta Bankarentzat. Baina behin eta berriro diogu data horretarantz bideraturik daudela dagoeneko. Konkurrentzialtasun handiagoz lanean hasiak dira dagoeneko.

Horietan lan egiten dugunok beso batez idiei helduz eta bestean "akuilua" dugularik jarraitzen dugu. Egunetik egunera "plazak" egiten ari gara. Eta gertatzen dena zera da: dagoeneko harria arinago mugitzen dugula.

A. M. A.

EL SISTEMA CREDITICIO PRIVADO

LE SYSTEME DE CREDIT PRIVE

El sistema crediticio privado vasco tiene unas características propias que le dan una acusada personalidad. Debemos referirnos fundamentalmente a la Banca Privada, Cajas de Ahorro y Cooperativas de Crédito. Los Gobiernos de Euskadi y Navarra tienen competencia exclusiva sobre las Cajas de Ahorro y las Cooperativas de Crédito, y competencia más restringida sobre la Banca Privada.

Además de los procesos de fusión de las Cajas de Vizcaya y Alava, debe recordarse la fusión de los Bancos Bilbao y Vizcaya. La presencia aquí de la Banca vasca (con domicilio social en las dos Comunidades Autónomas) es baja, frente a la gran influencia de las Cajas de Ahorro. Existe notable actividad por parte de la banca aquí asentada, con domicilio social fuera de nuestro entorno. La Banca Extranjera tiene aún poca presencia cuantitativa. Entre las Cooperativas de Crédito del Estado y vascas, destaca Caja Laboral Popular, que trabaja en los cuatro Territorios.

En el artículo puede verse un análisis comparativo de las entidades financieras. Sigue un análisis de la situación en ambas Comunidades Autónomas. Se estudian luego los problemas actuales de las entidades vascas: pequeño tamaño relativo (con sus ventajas e inconvenientes), costes de explotación algo altos, búsqueda de ingresos adicionales por nuevos productos y servicios, etc. Se afrontan con serenidad, pues la carrera hacia el "libre espacio financiero europeo" comenzó hace cierto tiempo. Seguirán adoptando probablemente estrategias diferentes, en función de distintas vocaciones.

Le système de Crédit privé basque a ses propres caractéristiques, ce qui lui donne une forte personnalité. Nous nous rapportons principalement à la Banque Privée, aux Caisses d'Epargne et Coopératives de Crédit. Les Gouvernements d'Euskadi et de Navarre ont une concurrence exclusive sur les Caisses d'Epargne et les Coopératives de crédit et une concurrence plus restreinte sur la Banque Privée.

En plus des processus de fusion des Caisses en Biscaye et Alava, nous devons rappeler la fusion des Banques de Bilbao et Vizcaya. La présence ici de la Banque Basque (ayant un siège social dans les deux communautés autonomes) est peu importante face à la grande influence des Caisses d'Epargne. Il existe une certaine activité de la part de la Banque établie ici, dont le siège social est hors de notre territoire. La Banque Etrangère n'a encore qu'une petite présence quantitative. Parmi les coopératives de Crédit de l'Etat et celles des Basques, la Caja Laboral se distingue par son travail sur les quatre territoires.

Dans cet article, on retrouve une analyse comparative des entités financières. A la suite, une analyse de la situation dans chaque Communauté Autonome est présentée. Les problèmes actuels des entités basques sont étudiés ensuite: relativement de petite taille (avec leurs avantages et inconvénients), coûts d'exploitation assez élevés, recherche de recettes supplémentaires par de nouveaux produits et services etc. Celles-ci s'affrontent avec calme, car la course vers le "libre espace financier européen" a commencé depuis un certain temps. Elles continueront à adopter probablement des stratégies différentes en fonction des diverses vocations.